

Bertsolaritza

Xehetasunak bai, gezurrik ez.

1997ko Bertsolari Txapelketa nagusia dela eta, pozgarri zaigu txapelketok oraindik duten jokaera eta herriaganako jarrera ona ikustea. Aldi berean, bijoaz gure zoriorenak abenduaren 14an Donostiako Anoeta belodromoan txapeldun irten zen Andoni Egafiarentzat.

Baina, abenduaren 13.ean Donostiako *El Diario Vasco*-n gaztelez irakurri dudana "Tres épocas muy diferentes" delakoaz Bertsolari Elkartekeoi zenbait ohar egin nahi dizkioet ekintza horren historiaz. Berrogeita hamargarren hamarkada haren erdialdetik Euskaltzaindian euskararen bizibidea bizkortze lana leporatu genuenok erakundea euskaldunon duintasunez baliatze lanez arduratsu ari ginen eta, besteak beste, bertsolaritza ikusten genuen herri xehearen aurrean aukerako gaitzat, etsipenak baztertuz euskaltzaletasunaren pizgarri.

Beraz, norbaitek egunkarian auzart agertu du:

La guerra civil cortó de raíz todo proceso de esaltación del bertsolarismo. El siguiente campeonato se

disputó en 1960, bajo la tutela de Euskaltzaindia, organismo tolerado por el régimen franquista...

Hori idatzi zuenak, argi dago, hortaz ez dakiela ezer. Horregatik, Bertsolari Elkarteak arretaz har ditzala ondoko ohar hauek: Basarri eta Uztapide, "toleraturik" jakina, herriz-herri eta plazarik-plaza aritzen ziren edonongo jaien aitzikiaz eta euskararen zorionerako. Horregatik sortu zitzaigun indarberritzerako gogoia zein asmoa.

Egia esan, ordurako han zebilen T. Hernandorena hots handiz ifarraldean bertsolari saioak antolatzen eta harekin izan genituen lehen harremanak Hegoaldean ere zerbait egin nahirik. A. Irigoyenek lortu zuen lehenik, Bizkaiko Diputazioan zenbaitekin zituen harreman ona aprobetxatuz, eta 1958ko abuztuaren 24an antolatu zuen Bilboko Arenalean Bizkaiko bertsolarien txapelketa (ikus Euskaltzaindiaren *Euskera*, III, 1958, 172. or.).

Hurrengo urteko azaroaren 8an, J. A. Mogelen omenez Eibarren eratu genituen hitzaldiak aprobetxatuz eta orduan alkate zen Jabier Egure-

ni esker lortu genuen Gipuzkoako txapelketa burutzea (ikus *Eusker*a, IV, 1959, 257-258 orr.). Antolaketza haiegatik gobernadoreak deitua izan zen alkatea, aditzera emanaz aurrerantzean holako ekitaldiak moztu zitzaizkion.

Gu gure aldetik, han eta hemen, ahal bezala bideak urratzen ariginen euskara indartzeko aukerak irekiz. Eta gezurra badirudi ere, Nafarroan aurkitu genuen laguntzeko aukerarik hoberenak Institución Printzipe de Viana-koegandik eta, horri esker, 1960ko ekainaren 26an Lekunberrin antolatu Nafarroako txapelketa (ikus *Eusker*a, V, 1960, 425-426 orr.). Hargatik, 1997ko txapelketa honetan Donostiako belodromoan bildu zen publikoak Printzipe Viana-ko ordezkaria txistukatzea tamalgarria ez ezik lotsagarria iruditu zitzaizkion. Garai haietan eta bai ondoko urteetan ere Nafarroako erakundeek eman zioten euskarari laguntzarik gehien.

Azkenik, Antonio Arrueren ahalegineri esker, urte bereko abenduaren 18an Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa nagusia Donostian burutzea lortu zen, aurreko hiruretan lehen mailetan gelditu zirenak eta Ifarraldeko aipatuenak gonbidatuz (ikus *Eusker*a, VI, 1961, 361-365 orr.).

Elkarteek, agiriak jaso eta gordetzeaz gainera, bakoitzak beren ekintzaren alorrean historia osatzen ere lan egin beharra dute, prentzara begira ez direnak esaten

jardungo ez bada. Gertatuak oker azaltzeak inori ez bai dio onik egingoten.

Baina hori zen gutxiengoa. Oraindik gezur handiagorik irakurri beharra tokatu zaigu ondoko lerrotan:

Tras un paréntesis de 13 años, el campeonato de 1980 supuso el reconocimiento de los méritos de Xabier Amuriza, un bertsolari renovador y culto, que a partir de ahí creó escuela, pero que consideraban demasiado alejado del clasicismo.

El campeonato de 1986 fue el primero organizado por la recién creada asociación de bertsolaris, que no estaban conformes con el sistema de clasificación escogido por Euskaltzaindia.

Zenbait bertsolariren artean X. Amuritzaren zeloak oso nabariak ziren, baina ez da harritzekoa, klasikotzat jo izan den bertsolaritzak lehenago ere ezagutu zituen aldakuntzak, edozein ekintzatan normala den bezala, historian maiz ematen den gauza da. Bertsolaritzan, ezagutzea dugunetik, Xenpelar izan zen lehenik eta Otaño gero. Gauza bera esango genuke Basarrik 1935ean hartu zuen bideaz, Txirritari eskemak eten zitzaizkion eta hortik sortu omen zitzaion bertso zelebre hura:

Larogei urte gafiñean ditut,
nago anketako miñez,
Donostiara etorria naiz
erren aundia egiñez.

Bi bastoirekin txit larri nabil pausorik eman ezin.

Euskera ia aztu zait eta erderaritan jakin ez, maixu batekin eskolan laster asi bear det latinez.

Orain, X. Amuritzaren eskolatik hurbil aritzen den Andoni Egaña agertzen zaigu txapelduan.

Klasifikatzeko sistema eran bat ez etortzeak ez du ez buru eta ez hanka, era hori zertan oinarritzen den esaten ez bada. Loiolan izan genuen bilera hartan bi gauza ziren eskatzen zizkigutenak, han bilduak oroituko dutenez: 1, A. Irigoyen epai mahitik kentzea; 2, epai mahaiko bakoitzak bere puntuak publikoari begira agirian ematea. Bestela galde Imanol Lazkano eta... Muruari.

Erakunde bakoitzak, aurrenik bere barneko giroaren oreka gorde beharra du eta antolaketan arigine-nok bagenekien Irigoyenek puntuaketak zuzen eramaten zituela. Bestetik, epai mahaia publikoki epaitu nahi izatea ez zitzaigun ondo iru-

ditzen, zeren epaitu beharrezkoak bertsolariak bai ziren.

Horren arabera, Euskaltzaindiak bere erara ez antolatzekotan, bertsolari elkartearen esku uztea nahiago izan zuen.

Era berriekin hasi ziren, baina bai laster porrot egin ere. Non da orain puntuak agirian emate hori? Nonbait, era hortako saioek ez bai ziren izan gehiengoaren gogoko. Guk ordea, alde zaurretik genekien era horrek bertsolariei berei egingo ziela kalterik gehien.

Berriz lehengo sistemara itzuli ondotik, damuaren eraginez edo, Anfonso Irigoyeni omenaldia eskaini zioten.

Gehienek aitortzen dute azken txapelketa motel xamarra izan dela. Baina, zer gertatzen da oraindik gazte diren bertsolari askok parte hartzerik nahi ezaz?

Abenduaren 16an *El Diario Vasco* egunkariaren 25. orrian Jesus Mari Mendizabalek argitaratu zuen "Txapelketaren ajeak" irakurgarria da. Horren aurrean, antolatzaileek, zer erantzun dezakete?

J. San Martin